

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

- Baliabide fisikoak: Proiektua aurrera eramateko honako baliabideak erabiliko ditugu; alde batetik, aplikazioa eratzeko eta harekin lan egiteko gutxienez bi ordenagailu behar izango ditugu eta bestalde, proiektua abiatzeko momenturako telefono finko bat soilik edukiko dugu baina proiektua aurrera badoa baliabide fisikoak aldatuko lirateke. Kide baten txokoan egingo dugu lan, han izango dugu telefono finkoa.
- Giza baliabideak: argi dugu proiektu hau aurrera eramateko langileen beharra edukiko dugula. Lehenengoz, informatiko bat behar izango dugu aplikazioa sortzeko eta programatzeko. Bigarrenez, proiektua arrakasta izanez gero bezeroekin harremanak izateko (kezkak, hobekuntzak...) zenbait pertsona kontratatuko genituzke deiak jasotzeko. Finantza baliabideak: diru iturrien atalan esan dugun bezala gure app-rako behar dugun dirua publizitatetik, dendetatik lortutako irabazitakoa eta guk inbertitutako dirua (gure aurrezkietatik ateratakoa).